

## **MU-ko 1. Urban Day MGEP-ko kanpusean**

2011/09/30

Egun berezi honetan, hainbat ekintza ezberdin antolatu ziren; Skate ikastaro eta lehiaketa, Graffiti ikastaro eta ikuskizuna, Skate baten diseinu grafikoaren lehiaketako sari banaketa, janari eta edariak, musika,... giro aparta benetan!!

MU-ko 1. Urban Day ekitaldia, Iturripeko frontoi estalian egin zen. Bertan, skate-kin aritzeko elementuak jarri ziren, kirol honetaz gozatu ahal izateko, eta honetaz gain, hurbildu ziren ikasleek graffitiak egiten ikusi eta praktikatzeko aukera izan zuten.

Ekitaldi hau, MUittu-tik antolatu zen, MU-ko kultura eta kirol zerbitzuaren elkarlanarekin.

